# URTERO ERREPIKATZEN DIREN ZALANTZAK

## Hezkuntza Laguntzako Espezialistak

steilas

### 1. Norberaren bazkaria

Bai jardun osoko lanpostua duten langileei, bai jardun erdiko lanpostua betetzen dutenei ere, jantokian zerbitzurik ematen duten edo ez kontuan hartu gabe, norberaren bazkarirako denbora dagokie. Jardun osoko lanpostua izanez gero, ordubete dagokio langileari; jardun erdiko lanpostua izanez gero, 30 dira dagozkion minutuak.

### 2. Eskolaz kanpoko jarduerak *(extraeskolarrak)*

Ez dago jarduera hauetan parte hartzeko derrigortasunik. Jarduera horiek kudeatzen dituenak kontuan hartu beharko lituzke ikasle guztien ezaugarriak eta, ondorioz, ekintzarako beharrezkoak diren baliabideak antolatu beharko ditu.

### 3. HEDATZE proiektua

Hedatze proiektua duen lanpostu bat hartuz gero, langilea proiektuan parte hartzera behartuta egongo da, beti ere currculuma finkatzeko jardueren ordutegian.

### 4. Klaustroak

2018an sinatutako akordioan jasotzen den moduan, zuzendaritzek hezitzaileen parte hartzea ahalbidetu behar dute, nahiz eta bozka eskubiderik ez izan.

### 5. Ordezkagunean irakasle lanpostu bat esleitu didate

**a) Hiru urteko antzinatasuna dut hezitzaile zerrendetan**

"Pertsonal ez irakaslego"-ra eta orain arteko ikastetxera idatzi, irakasle zerrendetan lanpostu bat esleitu zaizula adieraziz.

Hezitzaile zerrendetan mantentzen zara baina ez duzu eskaintzarik jasoko ikasturte osoan.

**b) Ez dut hiru urteko antzinatasunik hezitzaile zerrendetan**

Hezitzaile zerrendetatik kanporatua izango zara.

## 6. Lanaldia

### Lanaldi osoa

Jarduna:
astean gehienez 37 ordu eta 30 minutu.

Arreta zuzena:
egunean gehienez 6 ordu (posible ez bada, astean gehienez 30 ordu).

Material prestaketa eta koordinazioa:
astean 2 ordu eta 30 minutu.

Norberaren bazkaria:
egunean ordubete (12:00etatik 15:00etara).

### Lanaldi erdia

Jarduna:
astean gehienez 18 ordu eta 45 minutu.

Arreta zuzena:
egunean gehienez 3 ordu (posible ez bada, astean gehienez 15 ordu).

Material prestaketa eta koordinazioa:
astean ordubete eta 15 minutu.

Norberaren bazkaria:
egunean 30 minutu (12:00etatik 15:00etara).

Gure ordutegiak ikaslegoaren sarrera-irteera ordutegiarekin bat etorri behar du.

## 7. DAE

Zuzendaritza taldea arduratuko da gure ordutegia DAEn jasotzeaz.

## 9. Galdutako oporrak berreskuratzea

Erditzea, gaixotasuna edo istripua gertatzen badira, langileak galdutako abuztuko oporraldiaren egunak berreskuratzeko eskubidea izango du (gehienez 30 egun natural).

Egun horiek alta hartu eta jarraian disfrutatuko dira (nahiz eta ikasturte aldaketa egon tartean) baldin eta langileak kontratupean jarraitzen badu. Kontratua moztu bazaio edo kontratupean ez badago, opor egun horiek ordaindu egingo zaizkio.

## 8. Jabetza egitetik salbuetsita dauden egoerak

- Lan istripuagatik, lanbide-gaixotasunagatik edo haurra izateagatik aldi baterako ezintasun egoeran egotea.
- Haurdunaldian arriskua izateagatik edo arriskuko haurdunaldia izateagatik aldi baterako ezintasun egoeran egotea.
- Gurasotasun baimenean egotea.
- Adopzioagatik edo harreragatik aldi baterako ezintasunean egotea.
- Seme-alabak zaintzeko edo irakasleen zerrendetan lan egiteko jardunaldi-etete iragankorrean (*suspensión transitoria*) egotea.

### Orokorrak

Araba — Manuel Iradier 40 • 01005 Gasteiz
945 14 11 04 araba@steilas.eus

Bizkaia — Jose Maria Eskuza 1, 1 esk. • 48013 Bilbo
944 10 02 98 bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa — Basotxiki 30-34 atz.• 20015 Donostia
943 46 60 00 gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa — Joaquin Beunza 4-6, behea • 31014 Iruñea
948 21 23 55 nafarroa@steilas.eus

### Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileak

Araba — Irati: ara_irati@steilas.eus
Izaro: ara_izaro@steilas.eus

Bizkaia — Odei: biz_odei@steilas.eus
Naiara: biz_naiara@steilas.eus

Gipuzkoa — Rebeka: gip_rebeka@steilas.eus
Rakel: gip_rakel@steilas.eus

steilas